

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL KONTSEILUA 2022ko MAIATZAREN 3ko OHIKO BILKURAREN AKTA

Bertaratu direnak:

Beatriz Artolazabal andrea, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua eta Kontseiluko presidentea.

Josu Urrutia jauna, Euskadiko GGKEen Koordinakundeko presidentea eta Kontseiluko presidenteordea.

Paul Ortega jauna, eLankidetzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria.

Amaia Barredo andrea, ingurumen-alorraren eskumeneko saila ordezkatzuz.

Zuriñe Elordi andrea, Emakunde ordezkatzuz.

Asier Aranburu jauna, kanpo-ekintzaren eskumeneko saila ordezkatzuz.

Leixuri Arrizabalaga andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Herritarren Partaidetzaren Batzordeko presidentea.

Ainhoa Campo andrea, Arabako Foru Aldundia ordezkatzuz.

Ignacio Rodríguez jauna, Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatzuz.

Fernando San Martín jauna, Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatzuz.

Iñigo Eguren jauna, Mónica González andrea, Martin Iriberry jauna, Eneko Gerrikabeitia jauna, Iñaki Orube jauna, Olga García andrea eta Irene Molero andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundea ordezkatzuz.

Gorka Urrutia jauna, Estela Santos andrea eta Alberto Cereijo jauna, garapenerako lankidetzaren beste euskal gizarte-eragile batzuk ordezkatzuz.

Noemí de la Fuente andrea, Kontseiluko idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

Gainera, presidentek gonbidaturik, honako hauek bertaratu dira, hitzarekin baina botorik gabe:

Maite Garmendia andrea, eLankidetzaren koordinazio estrategikoko zerbitzuko.

Ana Telleria andrea, Kontseiluko idazkaritzarako laguntza teknikoa.

Ezin etorria adierazi dutenak:

Begoña Pedrosa andrea, hezkuntza-arloko sail eskuduna ordezkatzuz.

Nerea Urien Azpitarte andrea, osasun-alorraren eskumeneko saila ordezkatzuz.

Hernando Lacalle jauna, ogasun-alorraren eskumeneko saila ordezkatzuz.

Jone Miren Fernández Landa andrea, nekazaritza-alorraren eskumeneko saila ordezkatuz.

Ernesto Sainz jauna, EUDEL eta Euskal Fondoa ordezkatuz.

Elsa Fuente Do-Rosario andrea, Marta Macho andrea eta Carlos Ascunze jauna, garapenerako lankidetzaren beste euskal gizarte-eragile batzuk ordezkatuz.

Jesús Ochoa jauna eta Milagros Domínguez andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundea ordezkatuz.

Lekua. eLankidetzako egoitza, formatu presentzian.

Eguna eta ordua: 2022ko maiatzaren 3a, 12:00etan

Urteko lehenengo bilkurari eman dio hasiera presidenteak 12:05ean, agurrarekin, eta 2019az geroztik modu erabat presentzialean egiten den lehenengo osoko bilkura dela komentatu du. Ondoren, aurkezpenen txanda bati eman dio hasiera, eta Batzorde Iraunkorrek adostutako gai-zerrenda irakurri du.

1. Aurreko bilkuraren akta onartzea.
2. Kontseilua osatzen duten pertsona berriak aurkeztea eta Kontseilu Errektorerao langileen ordezkari izendatzea.
3. 2022rako kontseiluaren lan-plana aurkeztea eta adostea.
4. eLankidetzaren eta foru-aldundien 2022rako plan, aurrekontu eta deialdiei buruzko informazioa.
5. IV. Gida Planaren ebaluazioa eta luzapena aurkeztea.
6. Galderak eta eskaerak.

Irakurketaren ondoren, lehen puntuari ekin dio presidenteak:

1. AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

Inork ez du inolako oharrik egin, eta bertaratuek akta aho batez onartu dute.

2. KONTSEILUA OSATZEN DUTEN PERTSONA BERRIAK AURKEZTEA ETA KONTSEILU ERREKTORERAKO LANGILEEN ORDEZKARITZA IZENDATZEA

Presidenteak jakinarazi du Euskadiko GGKEen Koordinakundeak Josu Urrutia izendatu zuela presidente Sofía Marroquínen ordez, martxoaren 11n egindako batzar orokorrean. Horrenbestez, Josu izango da Kontseiluko presidenteorde, karguaren arabera.

Gainera, adierazi du Zehar-errefuxiatuekin elkarrekin otsailaren 22an jakinarazi zuela Patricia Bárcenak eta Alberto Cereijok beren karguei utzi egin zieten, titular eta ordezkari gisa, hurrenez hurren. Alberto Cereijo izango da orain titularra eta Beatriz de Lucas izendatu dute ordezkari gisa.

Era berean, EHUK martxoaren 25ean kendu zuen kargutik Bittor Rodríguez eta Marta Macho izendatu zuen, zeinak gaur bere ezin etorria adierazi duen. Estíbaliz Sáez de Cámarak ordezkari gisa jarraitzen du.

Azkenik, jakinarazi du Lehendakariak apirilaren 27an izendatu zuela Asier Aranbarri ordezkari gisa Iker Atxaren ordez, zeinak apirilaren 12an utzi baitzuen bere kargua. Gainera, komentatu du Iker Atxak eskatu zuela Kontseiluari jakinaraztea plazera izan dela bidea elkarrekin egitea, eta etorkizunik onena opa diela gainerako kideei.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortzen eta arautzen duen 5/2008 Legearen 9.1.c). artikulua arabera, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluak Kontseilu Errektorean dituen hiru ordezkarien izendapenak berriro dira.

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen aldetik Josu Urrutia eta Olga García proposatu dira titular gisa, eta Iñigo Eguren eta Martin Iriberry, aldiz, ordezkoko gisa.

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen ordezkapenik ez duten euskal gizarte-eragileek Alberto Cereijo proposatu dute titular gisa eta Elsa Fuente ordezkoko gisa.

Bozketa egin da eta aho batez onartu da akta.

3. 2022rako KONTSEILUAREN LAN-PLANA AURKEZTEA ETA ADOSTEA

Kontseiluko idazkari Noemí de la Fuenteri eman dio hitza presidenteak 2022rako lan-plan aurkeztu dezan. Batzorde Iraunkorrek onartu zuen plan hori martxoaren 21ean.

Noemí de la Fuentek adierazi duenez, 158/2008 Dekretuan aurreikusitakoari jarraikiz, ezohiko lau bilkura egitea planifikatu da, bi uda baino lehen eta beste bi udazkenean. Era berean, adierazi du maiatzaren 30ean ezohiko bilkura bat egitea aurreikusten dela, eta gogorarazi du lan-tailer bat egin zela martxoaren 18an IV. Gida Planaren ebaluazioaren eta luzapenaren esparruan.

Horrekin batera Noemí lau mugari garrantzitsu azpimarra ditu: (i) IV. Gida Planaren ebaluazioari eta luzapenari buruzko nahitaezko txostena ematea; (ii) lege-aurreproiektuari buruzko nahitaezko txostena ematea; (iii) Kontseiluaren barne-erregelamendua berrikustea; eta (iv) garapenerako politiken koherentziari buruzko bigarren txostenaren tematika eta erreferentzia-terminoak onartzea.

Azkenik, adierazi du nahitaezko txostenaren zehaztasunak programen dekretuan sartzeari edo ez sartzeari buruzko feedbacka emateko tarte bat izatea aurreikusita dagoela.



Plan de trabajo
CVCD 2022_versión

Bertaratutako inork ez du oharrik egin, eta presidenteak bozketari ekin dio, eta aho batez geratu da onartuta Kontseiluaren 2022ko Lan Plana.

4. ELANKIDETZAREN ETA FORU-ALDUNDIEN 2022rako PLAN, AURREKONTU ETA DEIALDIEI BURUZKO INFORMAZIOA

Beatriz Artolazabalek gogorarazi du 2018az geroztik eta Batzorde Iraunkorren proposamenez, Kontseilua osatzen duten administrazio publikoetako bakoitzak, urteko lehen osoko bilkuran, bere urteko planak, aurrekontuak eta lankidetzaren-deialdiak aurkezten dituela. Ainhoa Campori eman dio hitza, Arabako Foru Aldundia ordezkatzuz.



PRESENTACION 3
DE MAYO.pdf

Jarraian, Nacho Rodríguez bere aurkezpena egiteko aukera eman dio kontseilariak, Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatzuz.



IV_PLAN_DIRECTOR
_COOPERACION_v1.Cooperación 2022 v.



Dossier

Foru-erakundeekin amaitzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari Fernando San Martíni eman dio hitza presidenteak.



GFA_2022
aurrekontua.pdf



GFA_Plan
director.pdf



GFA_Presentación
convocatoria de ayu

Azkenik, eLankidetzako zuzendari Paul Ortegari eman dio hitza presidenteak.



eLankidetzako PLAN
ANUAL 2022 versión



eLankidetzako Presup
uesto, convocatoria:

Datozen urteei begira, Alberto Cereijok eskatu du gida planak eta lankidetzako deialdiak aurkezteko tartea denboran aurreratu dadila. Azkenik, galdetu du zein izango den programen tresnaren argitalpen-eguna.

Paul Ortegak, programen deialdiaren datari erantzunez, erantzun du ziur asko 2023ko lehen seihilekoan aterako dela, hori egiaztatu ezin badu ere, gainerako deialdiekin batera artikulatu behar baita.

Fernando San Martínez gogorarazi du 2023an foru- eta udal-hauteskundeetarako deialdia egingo dela, eta lankidetzako deialdiak hauteskunde-prozesua egin aurretik egingo dela ahal bada. Ideia hori azpimarratu du Natxo Rodríguezek ere.

5. IV. GIDA PLANAREN EBALUAZIOA ETA LUZAPENA AURKEZTEA

Kontseiluko presidenteak gogorarazi du, azken bilkuran adierazi zenez, Kontseilu Errektoreak azaroaren 16an oniritzia eman ziola lege berria onartu eta sei hilabete geroago arte gida plana luzatzeari, aurreproiektuak geroko plangintzak zehaztuko dituzten zenbait manu ezartzen baititu. Adierazi du hilabeteotan eLankidetzako lantaldeak 2018-2021 aldiko ebaluazioa eta luzapen-proposamena egin dituela. Eta hitza eman die Noemí de la Fuenteri eta Maite Garmendiari prozesua eta ondoriozko dokumentuak aurkeztu ditzaten.

Noemí de la Fuentek prozesuari buruz egindako sarrera labur baten ondoren, 2018-2021 aldiko ebaluazio-ekitaldia eta haren aurkikuntza nagusiak aurkeztu ditu Maite Garmendiak.



Evaluación IV Plan
Director-presentació



Evaluación IV Plan
Director_período 20

Luzapen-proposamena aurkeztu du ondoren Noemí de la Fuentek.



Prórroga IV Plan
Director_presentació



Prórroga IV Plan
Director_20220429.p

Presidenteak eskertu eta zoriondu egin du ebaluazioaren xehetasun-maila, hasieran planteatutako helburuak lortu ote diren jakitearen garrantzia eta premia aipatuz. Gainera, ezagutza-ariketa on bat dela adierazi du plangintza errealistago bat eta politika efizienteago bat egiteko oinarri gisa, baliabideak mugatuak direla kontuan izanda. Era berean, etorkizunari aurrea hartzearen garrantzia aipatu du, eta, horrekin batera, estatuan eta baita European ere lankidetzaren arloan lider izaten jarraitzeko berritu, partekatu eta koordinatu ahal izateko gaitasunaren garrantzia.

Era berean, gogorarazi du, 158/2008 Dekretuaren 2.2.a) artikulua ezartzen duenez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren funtzioen artean dagoela txostenak ematea, aldez aurretik eta nahitaez, urte anitzeko planen proposamenei eta plan horien ebaluazioei buruz. Eta maiatzaren 30erako aurreikusitako ezohiko bilkuran emango da ebaluazioaren eta luzapen-proposamenaren nahitaezko txostena.

Gainera, gogorarazi du 2021eko maiatzaren 17an Batzorde Iraunkorrek nahitaezko txostenak lantzeko prozedura berrikusi zuela, eta honako hau erabaki zuen: (i) Batzorde Iraunkorrek txostena egiteko lidergoari eustea; (ii) proposamena egiten duen organoak txostena egiteko prozesuan parte-hartzerik ez izatea; (iii) aztertzen ari den gaian interes berezia duten Kontseiluko beste kide batzuek ere parte hartzeko aukera izatea; eta (iv) eLankidetzak euskarri logistikoa ematea (deialdia, tokia, etab.).

Kontseiluko idazkariari eman dio hitza presidenteak nahitaezko txosten hori egiteko prozesua zehazteko. Maiatzaren 20a proposatu du Noemí de la Fuentek muga-egun gisa ekarpenak egiteko, Batzorde Iraunkorra bildu dadin eta nahitaezko txostena eman dezan, eta txostena maiatzaren 26an sozializatuko da, beranduenez. Maiatzaren 30eko ezohiko bilkuran aurkeztuko da, eztabaidatuko da eta onartuko da txostena. consejo@elankidetzak.eus helbidera bidali beharko dira ekarpenak.

Era berean adierazi du eLankidetzak memoria labur bat landuko duela, nahitaezko txosten horri egindako ekarpen bakoitzaren berri emanez. Jarraian, ekainean, Kontseilu Errektoreak onartuko ditu dokumentuak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak aztertuko ditu eta Gobernu Kontseilura eramango dira hark onartu ditzan.

Iñaki Orubek gogorarazi du txostena egiteko lantaldearen parte hartzeko gonbidapena Batzorde Iraunkorreko kideez haratago dagoela irekita. Noemí de la Fuentek Kontseiluko gainerako kideak animatu ditu txostenen elaborazioan parte hartzera, eta Kontseiluak gogoeta eta debateak sortzeko duen egitekoa gogorarazi du. Azkenik, beren borondatez txostenaren elaborazioan parte hartzera animatzen diren pertsoneri eskatu die Kontseiluko Idazkaritzari jakinarazi diezaiotela goian adierazitako helbidean.

6. GALDERAK ETA ESKAERAK

Galdera eta eskaeren txanda ireki du presidenteak

Bilkuran egindako aurkezpenei dagokienez, erakunde arteko koordinazioarekiko eta planen elaborazioarekiko konpromisoa nabarmendu du Irene Molerok, baita lankidetzarloan berrikuntzaren alde egindako apustua ere. Era berean, Bizkaiko Foru Aldundia zoriondu du 2022ko aurrekontu-gehikuntzagatik, eta erakunde guztiei gogorarazi die % 0,7 konpromisotik urrun gaudela oraindik ere. Azkenik, politiken koherentziak dakarren erronka aipatu du, eta, horrekin batera, Koordinakundearen ustez luzapenproposamenean eLankidetzak egindako planteamendu lotsati samarra. Eta alor horretan anbizio handiagoa izatera eta sakonago lan egitera animatu ditu erakundeak, horrek dakarren konplexutasuna onartuz.

Garapen jasangarrirako politika-koherentziaren esparruan aurrera egiteko konpromisoa nabarmendu du Beatriz Artolazabalek. Gainera, anbizioaren eta errealismoaren arteko orekak bilatzearen garrantzia azpimarratu du, lortu ezin diren helburuak ezartzea saihesteko.

Legea egiteko prozesuan izandako aurrerapausoen berri eman du Paul Ortegak eta iragarri du aurreikusten duela maiatzeko hirugarren asterako egon daitekeela lankidetzari eta elkartasunari buruzko euskal legearen aurreproiektuaren alde aurreko onarpen-agindua.

Presidenteak gogorarazi du hurrengo bilkura, ezohikoa, maiatzaren 30ean izango dela, 12:30ean. Bilkura horrek gai-zerrendan bi puntu izango dituela adierazi du: IV. Gida Planaren ebaluazioaren eta luzapenaren nahitaezko txostenaren onarpena, eta lege-aurreproiektuko proposamenaren aurkezpena. Gainera, adierazi duenez, formatu mistoan (presentziala eta birtuala) izango da, parte-hartzea errazteko.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez gero, etorri izana eskertu die presidenteak bertaratutakoei eta bilera amaitutzat eman da 14:10ean.

NOEMÍ DE LA FUENTE PEREDA

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUKO IDAZKARIA**

BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUKO
PRESIDENTEA**